

Gure patroï haundia

JOXEAN MUÑOZ



OKINEK, harginek, sendagileek, jostunek, irakasleek, prostitutek eta baita guardia zibilek ere badute beren santu berezia, patroï propioa. Zeruetan euren alde egingo duena, lurtean jai-egun baten eskubidea emango diena. Zerurako sarbideak gero eta estuagoak diren honetan, mundukoak berriz gero eta larriagoak, lanbide berriek ere beharrezkoa dute beren Santu berezia, Patroï bat, ohore, aintza eta babes emaile. Eliza hasi da, berez, santutegia arakatzen, ikus-entzunezkoen eta telebistaren inguruko jendearentzat santu edo santa egoki bat aurkitu nahian. Pozarren gaude.

Gaizto krudel batek gazteluko dorrean itxi zuen neskatilaz gogoratu dira, egun guztia leihotik begira pasatzen zuelako aitzakiarekin. Eztabaida zabalik dago. Bada Job pazientziatsua nahiago duenik, edo Santa Barbara, trumoi eta tximisten señora, edota San Buñuel. Euskaldunok arreta berezia jarri behar harko genioke eztabaidari, eta saiatu gure santuak ezagutarazten, hala nola San Axular, jendetza haundiak bildu zalea, dotrina ipuinekin tartekatuta azaltzen asmatu zuena, ipuin horiek erotismo, biolentzia eta krudeltasun zipriztinez erakargarriago gertatzen direla susmatu zuena.

Bidebatez, falta zaizkigun patroï santuak osatu ditzagun. Adibidez, ikastolen aldeko ibilian ibiltzearen ihardunak premiazkoa du patroï bat, gatazkaren suetatik eta guardia zibilaren amorrutik babestuko duena. Beñerako ibilaldia hartuko nuke nik eredu, baina aukeratu ezinik nabil Ama Birjina, San Jose edo astoa den, gure jai santifikatzen hasiari dagokiona. Erabakia denok hartu behar harko dugu, Bateginik.

Konstituzioa eta dogma

LONTXO OIHARTZABAL



KONSTITUZIOA alda-ezina dela sinestara nahian dabilzkigu politikariak Madril aldetik azken egunotan. Eta leialtasuna zor omen diogu. Konstituzioaren aldaezkortasun horri dogma-kutsua hartzen diot nik. Badakit begirunea zor zaiola, eta elkarbizitza bideratuko badugu oinarritzko araudi bat ezinbesteko dugula ere badakit. Baina gizakiok hartzen ditugun erabaki guztiak bezalaxe Konstituzioa ere aldakorra da, eta aldatu behar ere pertsonak eta pertsonen iritziak eta ikuspegiak aldatzen doazen neurri berean.

Eta nik uste, asko aldatu dira azken hamabost urte hauetan hiritarron usteak, iritziak eta itxaropenak, politikagintzaren eremuan behintzat. Ez alperrik iragan dira hamabost urte luze! Bai ordungo politikariak eta era berean hiritar arruntak ere itxaropentsu genbiltzan demokraziaren oinetako berriak osasunez urratu nahiaren nahiaz. Itxaropenez eta ikuspegi baikorrez idatzi eta onartu zuten Konstituzioa idatzi eta onartu zutenek. Gaur, ordea, baikortasun hura makaldurik sumatzen da alde guztietatik. Begira, bestela, alderdietako hainbat eta hainbat buruzagik eskeini diguten ikuskizuna: lapurreta, iruzurra edonon. Begira autonomien estatuaren moldakuntzari: bete ezina, onartezina, mesfidantza, inbiri nonnahi. Eta Konstituzioak lehenan irau behar duela! Ez omen dago ikusi nahi ez duena baino itsu okerragorik. Itsu ugari dagoela politikariaren artean esango nuke nik. Nora goaz itsuen eskutik?

● CINCO DÍAS

Europa, eraso sexualen kontra


Europako herrialdeak gero eta lege gogorragoak onartzen ari dira lantokietako eraso sexualen kontra borrokatzeko, arazoaren kontzientzia gehituz doan neurrian. Suitzan atera da helburu horri loturiko azken legea, Senatuan iragan astean onartua, langileak «lantokian emakume eta gizonezkoen duintasuna mintzen duten jokaera sexualetatik» babesten dituen.

Proposatutako legearen arabera —datorren urtean indarrean sartzekoa da— enpresariak erasoak eragozteko ardura zuzena dute. Enpresa batek ez baditu badaezpada neurri egokiak hartzen, eraso sexual baten biktimak badu auzitara jo eta nominako sei hilabeteteren heineko kalteordainak jasotzeko eskubidea. Nahiz eta kopuru apala den EEBBetakoaren aldean, han biktimek zenbait milioi dolar lor baititzakete, aurrerakoitz jotzen da, herrialde hartan duela gutxi arte eraso sexual ez kezaketa ia-ia tabu baitzen.

MARGARET STUDER

HEMEROTEKA

PRRRRFFFFFFFFFF



GALLEGO & REY / DIARIO 16

● Noticias

Nafarroako autonomia fiskala

Nekez espero zitekeen Espainiako Gobernuko presidentek, Felipe Gonzalezek, hizlarien mintzalekutik erantzun betegarria ematea Juan Cruz Alliren eskariari, honek astelehen arratsaldean Gobernuari galdatu baitzion erretira dezan inbertsioa laguntzeko Foru Legearen aurkako erretiraketa. Autonomia guztiak bertan zirenez gero —hain artean errekurtsioa bultzatu zuten biak: Errioxa eta Aragoi— errazago dirudi erretiratzeko erabakia, erretiratzekoan, bulegoetako diskretzioan hartzea, zeren eta aipatu autonomietako presidenteei

Gonzalezek zor dien alderdikide begiruneak berak ezinezko egingo bailuke halako oihartzuneko erabakia hartzea. Baina, hala eta guztiz ere, harrigarria izan zen presidente sozialistaren erantzuna: gaia hari dagokion zorroztasunez eta erantzukizunez hartu beharrean, inguru-tinguru ibili baitzen, gogora ekarriz guztiok Auzitegi Konstituzionalaren ebazpenak errespetatu eta aintzat hartu behar ditugula.

Baina ez zen inoren asmoa —ezta Juan Cruz Allirena ere bere mintzaldian— Auzitegi Konstituzionalak merezi duen errespetua eta atxikimendua auzitan jartzea; aitzitik, azalpenaren argudio nagusia Estatuko Gobernuak berak bultzatutako errekurtsioa izan zen, Nafarroako presidentek

Nafarroaren autonomia fiskalaren aurkako aurrez aurreko erasotzat jo zuena. Hori da kontua eta ez besterik, Felipe Gonzalez gaiaren mamari izkin egiten saiatu arren. Ildo honetan, gogora genezake errekurtsioa, aurretik esandakoaz gain, Administrazio zentralarekin egindako itun ekonomikoaren kontra ere badaola. Autonomien Estatuari buruzko debatega gogoetatze eta ahalegin bat izan da —asmoa hori zen behintzat—: gogoetatzea, Estatu batean integraturiko erregio eta nazionalitateak ere pluralen batera bizitzeko proiektua zer egoratan den, eta ahalegina, Behe Ganbara autonomien ordezkartiaz hornitzekoa.

EDITORIALA

ZUZENDARIARI

Ez ulertu eta ulertu nahi ere ez denean

Orainsu gutun bat argitaratu zen sail honetan bertan 'BBK ezin ulertu izan dut' titulupean, ez Euskaltzaindiarekin, ez Jagon Sailarekin zuzenean zer ikusirik ez zuten gaiak aipatzen zirelarik. Txarragoa oraindik, Jagon Jardunaldietan 'zigorbidet' hitza dela aitzakia euskararen erabilerak publiko eta erakunde publikoei buruz Quebec-eko legegintzaz eta euskara 'asignatura Maria' izan ez dadin esan genituenak manipulaturik —Andres Urrutia, Patxi Urbarren, Marian Lizarralde eta ni tartean— bai Xabier Kintana, bai Endrike Knörr eta bai niri etorri zaigu lehen

adiskide min izandako norbait, edo zer erantzukizun botatzera. Jaun horrek bukatzen zuen bere gutuna «Azkenik zer luke erraiteko semi-akademiko ('urgazle') Jose Luis Lizundia?»

Jakin beza horrek ni ez naizela semi-akademiko Euskaltzaindiko Arautegiaren arabera hiru mailako akademikoak baitira: 1 Numerokoak/euskaltzain osoak/académicos de número. 2 Euskaltzain urgazleak/académicos correspondientes. 3 Euskaltzain ohorezkoak/académicos honorarios. Ni neu Arautegiaren arabera eta 1972an Arautegi berritatzeko lan honetan partaide zuzena izan nintzen eta ni neuk proposatuta jarri zen Euskaltzaindiko idazkariordeak ezin zezakeela izan numeroko akademiko, lehenago nire aurrekoa

izan zen arren. Hori desegokia ikusten nuen, idazkariordea ezin bai daiteke izan numeroko/euskaltzain oso edo botoduna. Gainera, Munitibarko udal idazkari baten semeak jakin beharko luke, udal idazkaria ere korporaziokoa dela eta ez duela zinegotziek eta alkateak bezala boturik. Nik hori argi daukat horrela izan behar duela. Nire ondorengoei, berdin, ezingo dute izan numeroko, akademiko urgazle baik. Hori ongi eta zuzen da, boturik ez izatea, alegia, ez baita komeni ardura administratibo garrantzitsu bat duenak botu ahalmenik izatea.

Beraz, iraintzat, burlatatzat, hartzen dut jaun horrek esan zuena eta, ondorioz, nire aspaldiko adiskidetasuna bukatu dela.

JOSE LUIS LIZUNDIA

GAIA JARRITA



Xuxen

Euskal testuak sarri ez daudenez zuzen, ahalegin egin da bai baitzen hainbat sen. Nahiz eta orain arte dena bestela zen, informatikariak sortu dute 'Xuxen' gaurtik aurrerakoak zuzendu daitezzen.

AITOR SARRIEGI

Egunkaria

Batzorde Parekidea: 72564 E / Lege Gordailua: SS 800/90



OJDK IKUSKATUTAKO HEDAPENA

Administrazio Kontseiluko Lehendakaria: MARTIN UGALDE

Kontseilu Editorialeko Zuzendaria: JOAN MARI TORREALDAI

Kontseilari Ordezkarria: IÑAKI URÍA

Gerentea: FERMIN LAZKANO

Zuzendaria: MARTXELU OTAMENDI

Zuzendariordea: LUZIAN ETXEHARRETA

Publizitate: MARI JOSE SARASA

HELBIDEAK

Erredakzio eta Tajerra: ANTZA S.A. Industrialdea 01-02 Pabiloak / 20160 Lasarte-Oria / ☎: 37 15 45 / Faxa: 36 54 93

Egoitza soziala, Publizitatea eta Administrazioa: Antso Jakituna, 16-1 / 20010 Donostia / ☎: 46 90 22 / Faxa: 45 59 57

Araba: San Antonio, 20-Lezker. / 01005 Gasteiz / ☎: 23 38 72 / Faxa: 23 38 73

Nafarroa: Iraux Monastegia, 45-13.esk. / (Irrintzi dorrea) / 31011 Iruña / ☎: 17 80 7879 / Faxa: 17 80 77

Bizkaia: Zabalburu Enparantza, 2-1.azkera. / 48003 Bilbo / ☎: 410 40 46 / Faxa: 410 37 15

Lapurd / Nafarroa Beherea / Zuberoa: Pannecau 14, 1/503 Posta kutsatila. / 64100 Baiona / ☎: 59 59 35 75 / Faxa: 59 25 75 11